

HARAN SUBATLANTIKOAK


ARABA



A•13 Arabako lautadako harizti-uharteak

Izen horrek Arabako lautadako zenbait herritan sakabanatuta dauden hamalau harizt-zuhaizti txiki biltzen ditu. Enklabe horiek gunee horretan iraganean nagusitzen zen zuhaitz-erako landarediaz osatutako uharteak dira. Gaur egun lekuko hutsak izatera mugatzen dira, nekazaritza intentsiboak zereal, patata eta erremolatxa—labore zabalekin paisaia eragindako aldaketaren ondorioz. Haran—hondoetan edo goragune txikietan agertzen dira, garatzeko behar duten hezetasunaz hornitzen dituen erreka edo erreasto batek zeharkatuta, eta, besteak beste, zuhaixka, sahats eta elorri zuriz osatutako oihanpea egoera on samarrean mantentzen dute, gunee horiek babesten dituen arantzadi itxi bat eratuz.

Toki horiek funtsezkotzat jotzen dira laborantza intentsiboaz inguratuta dagoen basoko eta honen inguruko berezko faunaren biziraupenerako. Enklabe horretan, gainera, hurbileko ureztapen—urmael artifizialak sartu dira, ezaugarri onak baitituzte ur—inguruneari loturiko espezieak hartzeko.



A•14 Aldaiako mendiak

Area menditsu horrek Barrundiako eskualde Arabako lautadako gainerakoetatik banantzen du, eta bi alderdien artean hesi orografiko txiki bat osatzen. Bertako altuera nagusia Aldaia mendiaren tontorra da (789 m.), Elgea eta Urkilla mendilerroak, Uribarri—Ganboako urtegia eta, urrutirago, Gasteiz eta Entziako mendiak ikusteko behatoki natural paregabea, hain zuzen.

Esparru horrek erliebe korapilatsua du. Alde batetik, batez ere erkametzen eta arteen eremu zabalez estalitako mendi—hegal gogorak ditu eta, bestetik, ardi latxen artaldeek bazkatzeko erabiltzen dituzten larre eta sasiz osatutako eremuak. Basoetan inguruan ehizan ibiltzen diren hegazti harrapariak eta basoko animalia ugari babesten dira.